

ODOLA EMAN AURRETIK, GALDETEGI HAU IRAKURRI, ULERTU ETA BETE BEHAR DUZU

- Odola segurtasunez eman ahal izateko, ezin da baraualdi luzea (sei ordu baino gehiago) egin ondoren eman, baina gomendagarria da bi ordu edo gehiago igaro izana eguerdiko otordu nagusia egin denetik.
- Odol-emaileak ibilgailu publikoetako gidariak (pilotuak, makinistak, taxilariak, autobus- edo anbulantzia-gidariak), garabilariak, suhiltzaileak, altuera-lanetako beharginak eta abar direnean, lanaldia bukatu ondoren emango dute odola, 12-24 atsedeen-ordu igaro daitezzen berriz ere lanaldiari ekin baino lehen. Berdin jokatuko da arrisku handiko kirola egiten duten odol-emaileekin ere.
- Gutxienez bi hilabete igaro behar dira odola azkenekoz eman zenetik, eta azken urtean ezin da odola hiru aldiz (emakumeek) edo lau aldiz (gizonek) baino gehiago eman.

 MARKATU
 DAGOKIONA


Odola azkenekoz eman zenuenetik: Sendagilearengana edo ospitalera joatera behartu zaituen ondoezik izan duzu, edo probaren bat, ebakuntzaren bat edo txostenen bat egiteko zain zaude.

Azken bi asteetan: sukarra edo prozesu infekziosorik izan duzu (gripea, katarroa, faringitisa, zistitisa, beherakoa). Ebaki, zauri edo abrasioaren bat izan duzu.

EZ BAI



Odola azkenekoz eman zenuenetik: Ebakuntza kirurgikoren bat behar izan duzu. Menturen edo transplanteren bat egin dizute. Nahi gabeko zitzadaren bat izan duzu edo gorputz-jariakinekin kontakturik izan duzu.

Azken lau hilabeteotan: Piercing edo tatuajeren bat egin duzu. Akupuntura egin dizute. Honakoren bat egin dizute: **gastroskopia, kolonoskopia, errektoskopia** edo **bronkoskopia**. **Dentistarengana** joan zara.

EZ BAI



Odola azkenekoz eman zenuenetik: Tratamendu medikoren bat hasi edo aldatu duzu. Txertoren bat edo gammaglobulina jaso duzu. Aknerako, psoriasisirako, ile-erorketarako edo prostatarako sendagaiak hartu dituzu. Erabilera ez-medikoa duten **drogak** (marihuana, kokaina, estimulatzaileak, anabolizatzaileak) kontsumitu dituzu ahoz, sudur bidez edo injektaturik.

GI/Barekiko esposizio aurreko birus-kontrako medikazioa (Truvada...)

Azken bost egunetan analgesiko **antiinflamatorioaren** bat hartu duzu (aspirina, ibuprofenoa...)

EZ BAI



Odola azkenekoz eman zenuenetik: Haurdun egon zara. **Aborturen** bat izan duzu. **Esnea eman duzu.**

EZ BAI



Odola, plaketak edo odol-deribaturen **bat transfunditu dizute.** Non?

EZ BAI



Odola azkenekoz eman zenuenetik: Gaixotasun infekziosoren bat izan duen norbaitekin kontaktua izan duzu? (Hepatitisa, tuberkulosia, barizela, elgorria, kukutxeztula, errubeola, paperak, eta abar).

EZ BAI



Azken lau hilabeteotan sexu-harremanak izan dituzu:

- Zure ohiko bikotekidea ez den norbaitekin (ohiko bikotekidea = duela lau hilabete baino gehiago hasi den harreman monogamo eta egonkorra)
- Prostituzioan aritzen den edo aritu den norbaitekin
- Hainbat lagunekin harremanak dituen norbaitekin
- Hepatitisa, hiesa/giza immunoeskasiaren birusa edo beste gaixotasun infekziosoren bat duen edo horren eramailea den norbaitekin
- Injektatutako drogak edo sendagaiak kontsumitzen edo kontsumitu dituen norbaitekin
- Atzerriko herrialderen batean jaio den norbaitekin.

EZ BAI



Azken urtean atzerrira bidaiatu duzu, Europa barne.

Noizbait: Hilabetez baino gehiagoz bizi izan zara Europatik kanpo.

Bidaiatu ostean azalpenik gabeko sukarririk izan duzu.

EZ BAI



Zuk edo zure familiak Creutzfeldt-Jakob-en gaixotasunaren edo horren aldaeraren baten aurrekariak dituzue?

EZ BAI



Zalantzaren bat al duzu egin dizkizugun galderen inguruan?

Azalpenen bat nahi duzu odola emateko prozesuaren beste alderdiren bati buruz?

EZ BAI

Odol-emanaldiari buruzko ohar medikoak

HAU ADIERAZI NAHI DUT

- Gaixoei laguntzeagatik bakarrik ematen dut odola. Inork ez nau behartu odola ematera.
- Odolaren bidez transmititu daitezkeen gaixotasunak kutsatzeko arriskua duten jardueri buruzko informazioa irakurri dut gaur eta egokia iruditu zaidan edozein galdera egiteko aukera izan dut. Ulertzen dut jarduera horiek egin izan banitu, ezingo nukeela nire odola eman, odol hori jasotzen duen gaixoarentzat arriskutsua izango bailitzateke, nahiz eta unitate guztiak zorrotzasun handienaz analizatuak diren, odola inori eman aurretik.
- Fede onez erantzun diet nire osasunari buruz egin dizkidaten galdera guztiei.
- Ezagutzen dut odola emateko prozedura, eta badakit horrekin lotutako arriskuren bat ager daitekeela ondoren, adibidez, hematoma, zorabioa, mina edo analisietako hemoglobina eta burdinaren balioetan aldakuntza txikiak. Badakit, halaber, egoki iruditzen bazait, edozein unetan eten dezakedala odol-emanaldia. **Bada, hori guztia jakinik sinatzen dut nire baimena emanez.**

Interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak **Osakidetza - Euskal osasun-zerbitzuak** tratatuko dituela. EMAILEEN ERREGISTROA tratamenduaren xedea da giza jatorriko substantzien eta organoen emaileak sustatzea, lortzea eta fidelizatzea eta baliabideak ospitaleetara banatzea, eta osasun azterlanak.

HISTORIA KLINIKOA tratamenduaren xedea da pazientearen historia klinikoren datuak izatea, horren jarraipena egiteko eta laguntza-jarduera kudeatzeko, legezko betebeharrak betetzeko. Posible da datuak honako hauei jakinaraztea: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, GSIN, agintari judizialak eta aseguru-etxeak.

HITZORDUAK tratamenduaren xedea da hitzorduak kudeatzea, osasun-zentroetako kontsulten plangintza egiteko, tratamenduaren arduradunari esleitu zaion interes publikoko misioa betetzeko edo hari egotzitako botere publikoak gauzatzeko. Legeak behartzen badu soilik lagako zaizkie datuak hirugarrenei. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Osakidetza langile sanitarioek eman dituzte. Interesdunak eskubidea du datuetara sartzeko eta horiek zuzendu edo ezabatzeko, eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko.

Galdetegiko galdera guztiei erantzutea derrigorrezkoa da, ezinbestekoak baitira datu-jasotze honen helburu den tratamendurako. Datuen babesari buruzko informazio gehiago duzu web-gune honetan: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/babesdatuak>

Baimena ematen dut lehen adierazitako xedeetarako datu pertsonalak tratatu eta komunikatzeko.

ODOL-EMAILEAREN ETIKETA	ODOL-EMAILEAREN SINADURA	EMANALDIAREN ZENBAKIA
IZENA _____ 1. ABIZENA _____ 2. ABIZENA _____	EMAILE ZK _____ JAIOTZE-DATA / / _____ NAN _____ GIZONA <input type="checkbox"/> EMAKUMEA <input type="checkbox"/>	

DATUAK GEHITU/EGUNERATU

JAIOTERRIA:

BESTE BATZUK:

DATA / / PISUA TA PULTSUA Hb EGOKIA

Exklusio-zk. Hasiera-data / / Amaiera-data / / Amaierako data ez-jakina DESEGOKIA

OM..... OE..... OA.....	OM..... OE..... OA.....	OHARRAK	Ateratze mota
-------------------------------	-------------------------------	---------	---------------

ELKARRIZKETA EGIN DUEN OSASUN-LANGILEAREN KODEA	ELKARRIZKETATZAILEAREN SINADURA	ODOLA ATERA DUEN LANGILEAREN SINADURA	ODOLA ATERA DUEN LANGILEAREN KODEA
---	---------------------------------	---------------------------------------	------------------------------------